

A16 - Landare baten fisiologia eta fotosintesiaren datu bilketa eta analisia

Landare baten fisiologia eta fotosintesiaren datu bilketa eta analisia. Ikasleek Sensorizatutako landaren batzuen datu bilketa egingo da eta datu hauen errepresentazio grafikoa bat egin beharko dute.

Ikasurtea

- 1. Batxilergoa**
- 2. Batxilergoa**

Data

2023ko otsailan

Lantzen diren irakasgaiak

Biologia
Teknologia

Jarduera motak

Adituaren bisita entitatera

Hizkuntza

Euskara

Irismen geografikoa

Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

UGLE Eskola
HETEL

Curriculumaren edukiak

Sistema eta instalakuntza elektriko eta elektronikoak.

Sistema teknologikoen kontrola, programazio hizkuntzak erabiliz.

Landareak: funtzioak eta ingurunerako moldaerak.

Zer ikasten dute ikasleek?

Landareen fisiologia, metabolismoa edota fotosintesia.

Landareen anatomia.

Prozesagailuen programaketa.

Sentsoreen konexioa eta irakurketa.

Datuen interpretazioa.

Garapena

Ikasleek landare bat sentsorizatutako negutegi batean sartuko dute landareak fotosintesia egiten duen bitartean eta negutegi barruan gertatzen diren aldaketa fisiko-kimikoen datuak bildu eta ordenagailuan edo mugikorrean ikusiko dituzte. Sensorizazioaren instalazio elektriko eta elektronikoa azalduko zaie. Aldi berean datu bilketa baimentzen duen programazio hizkuntz azalduko zaie.

Neurtuko diren aldagaiak hurrengoak dira:

- Aireko Oxigeno kontzentrazioa.
- Aireko CO₂ kontzentrazioa.
- Temperatura.
- Hezetasuna.

Ikasleek datu hauek denbora errealean ikusi eta grafikatu dituzte, modu experimentalean kontzeptu teoriko hauen analisia burutuz.